

Laneko barne-indarkeriarekiko Zero Tolerantzia Politika

SARRERA

Europako Parlamentuak, Osasunaren Mundu Erakundeak, Lanaren Nazioarteko Erakundeak eta Europako Laneko Segurtasun eta Osasun Agentziak, beste erakunde batzuen artean, laneko indarkeriaren prebentzioak duen garrantzia azpimarratu dute norbanakoen, taldeen eta antolakundeen osasunean duen eragina aintzat hartuta.

Eraso fisikoez gain oihukatzea, errespetua galtzea, baztertzea, iraintzea, gaizki tratatzea, makurraraztea, beldurtzea, mehatxatzea eta jazartzea bezalako ahozko, idatzizko edo keinu bidezko jokabideak ere laneko barne-indarkeriatzat hartzen dira. Era berean, beste jokabide batzuen artean, norbait taldetik baztertzea bilatzen duten jokabideak, modu zuzenean edo beste batzuen bitartez norbaitek arlo profesionalean eta/edo pertsonalean duen izena zikintzea eta norbait sexu, genero edo arraza arrazoiengatik erasotzea ere laneko barne-indarkeriatzat joko dira.

Langileek etsaitasun jarrera bat izan dezakete lankide batekiko eta beharrezkoa da auzi hori erakunde barruan lantzea, lan-segurtasunarentzat eta lan-osasunarentzat suposatu dezaketen arrisku handiagatik.

Horren aurrean, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak, Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako laneko jazarpen moralaren aurkako 2003ko abenduaren 2ko Akordioak eta Laneko jazarpenari eta indarkeriari buruzko 2007ko apirilaren 26ko Europako Esparru Akordioak jasotzen dituzten lan-arriskuen aurrean babesa izateko langileek dituzten eskubideetan oinarrituta, PALACIO EUSKALDUNA JAUREGIA erakundeko Administrazio Kontseiluak, Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak barne-indarkeria psikologiko eta fisikoaren prebentzioan lagunduko duten praktikak sustatzeko eta, hala badagokio, jokabide okerrei amaiera emateko konpromisoa hartzen dute.

Helburu horiek erdiesteko ezinbestekoa da elkarlana eta kontsentsua lortzea, laneko barne-indarkeria emateko arriskua ahal bezain beste murrizteko politika baten esparruan beharrezkoak diren jarduketak-neurriak diseinatu eta aplikatzeko.

Politika hau PALACIO EUSKALDUNA JAUREGIA erakundeko langile guztiei aplikatuko zaie, inolako bereizketarik egin gabe hari lotzeko moduagatik edo lotura horren iraupenagatik. Politika hori Euskalduna Jauregiari zerbitzua ematen dioten enpresen langileentzako ere izango da aplikagarria. Hori guztia, enpresa-jardueren koordinazioaren esparruan eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearekin bat etorritik.

Barne-indarkeriaren aurkako politikak jarduketa prozedura ezartzen du pairatutako gertakaria kudeatzeko eta pertsonen, taldeen eta erakundeari gertakariaren ondorio fisikoak eta/edo psikologikoak gainditzen laguntzeko.

ZERO TOLERANTZIA

PALACIO EUSKALDUNA JAUREGIAk barne-indarkeriaren aurkako Zero Tolerantzia Politika garatu du. Ez da inolako indarkeriazko jokabiderik onartuko, ezta bidezkotuko ere, eta langileen osasuna eta eskubideak babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

Maila hierarkiko, talde eta lanpostu guztietan prebenitu behar da indarkeria. Lanerako giro seguru eta osasungarri bat lortzeko, langileen erantzukizuna da ezarritako Politika urratu dezakeen edozein gertakari Gertakarien Erregistroaren Orriaren bidez erregistratzea.

Erregistratutako informazio guztia bizkor aztertuko da eta Ebaluazio Batzordeak konfidentzialtasun osoz gordeko du ezarritako prozedura jarraituz.

Ebaluazio Batzordea edo arrisku psikosozialen eta enpresa osasungarriaren jarraipena egiteko taldea osatuko dute: Administrazio Kontseiluko kide batek edo hark eskuordetutako pertsonak, enpresako Zuzendaritza Nagusiak edo eskuordetutako pertsonak, segurtasun- eta logistika-kudeatzaileak, langileen ordezkariak eta 2 langile boluntariok.

BERMEAK

Prebentziorako prozesu honetan modu zuzenean parte hartuko duen edozein pertsonak isilik mantentzeko betebeharra izango du. Halaber, intimitaterako eskubidearen babesa eta prozesuko informazio pertsonalaren tratamendua Datuak Babesteko Legean ezarritakoaren arabera izango dela bermatuko dira.

Era berean, PALACIO EUSKALDUNA JAUREGIAk lekuko bezala jarduten duten edo barne-prozesurako informazio ekarpenak egiten dituzten pertsonak beldurrarazterik, jazarpenik, bereizketarik edo errepresaliarik ez jasatea bermatuko du. Mota honetako edozein ekintza diziplinazko gaitzat hartuko da.

KOMUNIKAZIOA

Politika hau alderdi interesdun guztiei jakinaraziko zaie, agintaritza, tarteko aginte eta langile guztiak sentikor bihurtzeko idatzitako adierazpen instituzional batekin batera.

Zuzendaritza nagusia

Bilbon, 2021eko maiatzaren 27an